



DATUAK EZAGUTZEKO JARDUERA: Datuak, ingurua ezagutzeko tresna

Jarduera honetan, ikasleek euren ingurua hobeto ezagutzeko hainbat ekintza burutuko dituzte. Ekintza hau, eskolan bertan burutu daiteke, edo eskola ingurua zein herria bera hobeto ezagutzeko baliatu.

Ikasleei behaketa burutu nahi den lekuko mapa edo plano bat emango zaie, izan eskolakoa edo herrikoa. Komenigarria da mapa argia izatea ikasleak bertan galdu ez daitezen.

Mapa prest dugunean, datuak biltzeko garaia da. Egokiena da ikasleek bigauza ezberdinetan erreparatzea, batetik, datu gehiegi ez izateko eta, bestetik, horiek mapan adieraztea errazteko.

Hona hemen ikasleek datuak biltzeko hainbat gai:

- Animalia ornodunak eta ornogabeak
- Hosto erorkorreko zuhaitzak eta hosto iraunkorreko zuhaitzak
- Loredun landareak eta landare loregabeak

Gaia zehaztu ondoren, ikasleei bi koloretako gometsak emango dizkiegu. Gomets bakoitzak datu bat adierazteko balio izango du. Adibidez, gomets berdeek landare loregabeak adierazteko balio dezakete, eta gomets gorriek landare loreduak. Hori guztia zehaztu ondoren, kalera atera eta ikusten duten gauza bakoitzeko dagokion koloreko gomets bat itsatsi beharko dute mapan. Era honetan, saioa bukatzean ikasleek inguruko datu horiek mapan bilduta izango dituzte.

*Garrantzitsua da behaketa gaia zehazterakoan behatuko den ingurua ere ondo zehaztea. Izan ere, parke batera joanez gero, ikasleak zoratu egingo dira landare loreduak eta loregabeak zenbatzen.



KONTUAN IZAN

- **HELBURUA**

Jarduera honen helburua ikasleek datu ezberdinak bilduz ingurua hobeto ezagutzeko tresna berri bat ezagutu eta maneiatzea da.

- **IKASLEEI ESKATZEN ZAIENA**

Ikasleei eurek ikusitako datuak jasotzeko besterik ez zaie eskatzen jarduera honetan.

